

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### HEZKUNTZA ETA KULTURA SAILA

##### Hezkuntza

#### **2021-2022 ikasturtean ikasteko zailtasunak dituzten neska-mutikoei laguntzeko diru-laguntzen deialdi publikoa eta deialdia arautzen duten oinarri espezifikoak**

Tokiko Gobernu Batzarrak 2021eko uztailaren 2an eginiko ohiko bileran, onetsi egin dira 2021-2022 ikasturtean ikasteko zailtasunak dituzten neska-mutikoei laguntzeko diru-laguntzen diru-laguntzen deialdi publikoa eta deialdia arautzen duten oinarri espezifikoak.

Urriaren 1eko 39/2015 legearen 45.1 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, oinarri horiek argitaratzen dira guztiek jakin dezaten.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko uztailaren 2an

*Hezkuntza eta Kultura Saileko zinegotzi ordezkaria*  
**ESTÍBALIZ CANTO LLORENTE**

#### **14. ildo. Hezkuntza. Ikasteko zailtasunak dituzten neska-mutikoei laguntzeko dirulaguntzak. 2021-2022 ikasturtea**

Tokiko Gobernu Batzordeak 2020ko abenduaren 11n onartu zituen 2021erako Vitoria-Gasteizko Udaleko dirulaguntzen deialdiak arautzen dituzten oinarri orokorrak. Oinarri orokor horiek 2020ko abenduaren 30eko ALHAOn (148. zenbakian) argitaratu ziren, eta webgunean ([www.vitoria-gasteiz.org/subvenciones](http://www.vitoria-gasteiz.org/subvenciones)) eta herritarren arreta bulegoetan begiratu daitezke. Deialdi espezifiko honetara aurkeztu nahi duten entitateek bertara etorri beharko dute eskaerak nola eta non aurkeztu behar diren jakiteko, eta entitate eskatzaileen baldintzak eta betebeharrak, dirulaguntzak justifikatzeko modua, formularioak eta abar ezagutzeko.

##### **1. Diru-laguntzen linea**

14. linea. Ikasteko zailtasunak dituzten neska-mutikoei laguntzeko dirulaguntzak. 2021-2022 ikasturtea.

##### **2. Hitzaurrea**

Vitoria-Gasteizko hiriak, hiri hezitzaile den aldetik, badu asmo osoz gauzatu nahi duen helburu bat: bertan bizi diren pertsona guztien prestakuntza, sustapena eta garapena. Ildo horretatik, bere egiten du aniztasunari erantzun beharra hezkuntza inklusiboaren esparruko jardueren bidez, hau da, pertsona guztiek kalitatezko hezkuntza aukera-berdintasunean, eta modu bidezkoan eta ekitatiboan jasotzea bermatzen duen hezkuntzaren bidez; mehatxu handienak jasaten dituzten kolektiboei erreparatuko die bereziki hezkuntza horrek, hau da, desorekak eragin ditzaketen egoera gehien pairatzen dituzten kolektiboei.

Dirulaguntzen deialdi hau testuinguru horretan biltzen da, hain zuzen.

### 3. Deialdiaren helburua

Dirulaguntzen deialdi honen xedea hau da: 2021-2022 ikasturtean Vitoria-Gasteizko ikastetxeei laguntza ekonomikoa ematea, Lehen Hezkuntzan matrikulatuta dauden eta ikasteko zailtasunak dituzten neska-mutikoei laguntza psikopedagogikoa jaso dezaten.

### 4. Erakunde hartzaileak eta ikasle onuradunak

Vitoria-Gasteizko ikastetxeak izango dira laguntzen hartzaileak, zehazki, Lehen Hezkuntzan irakaskuntza gauzatzen dutenak. Hala, ikasteko zailtasunak dituzten ikasleei laguntza emateko erabiliko dute, betiere Udalaren Hezkuntza Zerbitzuak (Hezkuntza eta Kultura Saila) onartzen badu, ikastetxeek aurkezten dituzten eskaerekin eta txostenekin bat etorritik.

Laguntza horien hartzaile nagusiak Lehen Hezkuntzan matrikulatuta dauden ikasleak izango dira; zehazki, ikasteko arazoak dituztenak eta 2020-2021 ikasturterako Eusko Jaurlaritzaren beka jaso dutenak, Hezkuntza sailburuaren 2020ko irailaren 30eko Aginduaren esparruan. Agindu horren bidez, unibertsitatetik kanpoko mailetan ikasleak eskolatzeko beka eta laguntzen deialdia egin da, baina hortik kanpo geratuko dira testuliburuen eta material didaktikoaren erabilera solidario eta bidezkorako programako beka.

Premisa horiek abiapuntu hartuta, hauek izango dira, beraz, 2021-2022 ikasturterako laguntzen ikasle hartzaileak:

– 2020-2021 ikasturtean laguntza horien onuradunak izan diren Lehen Hezkuntzako ikasleak, ikasteko zailtasunak dituzten neska-mutikoei laguntzeko 2020-2021 ikasturteko deialdiko 4. klausularen babespean (2020ko uztailaren 24ko ALHAO, 83. zenbakian), betiere 2020-2021 ikasturtean beka horiei uko egin ez badiete eta erakunde publikoetatik pareko laguntzarik jasotzen ari ez badira.

– Deialdi honek bultzatzen duen laguntza psikopedagogikoa lehen aldiz eskatzen duten Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailako ikasleak, betiere erakunde publikoetatik pareko beste laguntzarik jasotzen ari ez badira.

Salbuespen gisa, eta betiere ezohiko baldintzarik badago, Hezkuntza Zerbitzuak baloratu ahal izango du deialdiaren oinarrietan adierazten ez diren Lehen Hezkuntzako ikasturteetan matrikulatutako haurrei dirulaguntzak emateko proposamena.

### 5. Baliabide ekonomikoak

Hezkuntza eta Kultura Sailak (Hezkuntza Zerbitzuak) 2021-2022 ikasturterako, gehienez ere, 150.000,00 euroko kreditua bideratuko du deialdira, honela banatuta:

– 41.049,00 euroko gehieneko kreditua dago 2021eko udal aurrekontuko 2319 02 3261 48004 partidaren kontura.

– 108.951,00 euroko gehieneko kreditua 2022ko udal aurrekontuaren kargura betiere baldintza hau betetzen bada: kreditu egokia eta nahikoa egotea deialdi honetara bideratuta dagoen 2022ko udal aurrekontuan.

### 6. Diruz lagundu daitezkeen ekintzak

6.1. Deialdi honek laguntza emango du ikaskuntza-prozesuan, Vitoria-Gasteizko Kabinete psikopedagogikoei egindako eta ikastetxeek proposatutako saioen bidez. Saioen kopurua deialdi honen ebazpenean zehaztuko da, eta onartutako eskaeren arabera izango da.

6.2. Saio horiek ikaskuntza-prozesuan zailtasunak dituzten ikasleei laguntzeko izango dira. Artatuko diren premiak gaitasun linguistikoaren garapenarekin lotuta egongo dira, baita garapen emozionalarekin lotutako eta arreta indibidualizatua ematea gomendatzen duten izaera psikopedagogikoko beste batzuekin ere.

6.3. Saioak banakakoak zein taldekoak izango dira, eta Kabinete psikopedagogikoen egoitzan egingo dira. Ikastetxeek ikasleen talde-arretarako proposamenak aurkeztuko dituzte (gehienez 3 ikasle), hizkuntza-gaitasunaren garapenarekin lotutako zailtasunak badituzte, eta banakako proposamenak gainerako ikasleentzat, hots, garapen emozionalari lotutako arazo psikopedagogikoak dituztenentzat.

Ikastetxeek honako hauek jakinaraziko dizkiete Kabinete psikopedagogikoei: zenbat saio ezarri dituzten, banakoak ala taldekoak diren, eta deialdi honen hartzaileak ez diren neska-mutikoez ezin dutela parte hartu saioetan.

6.4. Saioek ordubeteko iraupena izango dute, eta 2021-2022 ikasturtean egingo dira. Hala ere, 2022an egin daitezkeen 2021-2022 ikasturteko saioak eta, beraz, emandako dirulaguntzaren bigarren ordainketa, 2022ko udal-aurrekontuan kreditu egokia eta nahikoa egotearen baldintzapean egingo dira.

6.5. Kabinete psikopedagogikoek familiekin komunikatzea eta orientazioa ematea xede duen lan-ildoan ere garatuko dute, 30 minutuko 3 saioen bitartez, saio bat hiruhileko bakoitzeko. Saio horietan, familiak ez ezik, ikasle onuradunen aholkulariek zein tutoreek parte hartu ahalko dute, egokitzen hartzen bada.

Kasu honetan ere, saioak Kabinete psikopedagogikoen egoitzan egingo dira.

## 7. Eskabideak eta dokumentazioa aurkezteko epea eta tokia

7.1. Aurkezteko epea: Eskabideak eta agiriak aurkezteko epea oinarri hauen deialdiari dagoen testua ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunean irekiko da, eta 2021eko irailaren 24ra arte egongo da irekita (egun hori ere barne). Eskabideak epez kanpo aurkeztea arrazoi izango da dirulaguntzak emateko prozeduratik kanporatzeko.

7.2. Eskabideak aurkezteko lekua: Eskabideak herritarrentzako arreta-bulegoetan aurkez daitezke, bai eta Vitoria-Gasteizko Udalaren egoitza elektronikoa eta legez aurreikusitako gainerako moduetan ere, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, xedatutakoaren ildotik.

## 8. Eskaerak aurkeztea

Dokumentu hauek aurkeztuko dira:

– Ikastetxeko zuzendariak sinatutako dirulaguntzaren eskaera, Vitoria-Gasteizko Udaleko 2021erako diru laguntzen deialdia arautzen duten oinarri orokorren ereduaren arabera (2020ko abenduaren 30eko ALHAO, 148. zenbakian "Vitoria-Gasteizko Udaleko dirulaguntzaren eta laguntza ekonomikoaren eskaera"). Webgune honetan dago eskuragarri: [www.vitoria-gasteiz.org/subvenciones](http://www.vitoria-gasteiz.org/subvenciones).

– I. eranskina. Ikastetxeko aholkulariak eginiko ikasle bakoitzaren txosten teknikoa. Bertan, aurkeztutako eskaeraren oinarrian dagoen beharrezkoen berri eman behar da, ikastetxeko zuzendaritzaren oniritziarekin. Ikastetxeak proposatzen du arreta banakoa edo taldekoa izatea eta zein Kabinetek emango duen zerbitzua; informazio hori guztia txostenean adierazi beharko da.

– II. eranskina. Ikastetxeko zuzendaritzaren erantzukizunpeko adierazpena, saioetan parte hartzeko proposatutako ikasleak Eusko Jaurlaritzaren bekaren onuradun direla egiaztatzen duena, Hezkuntza sailburuaren 2020ko irailaren 30eko Aginduaren arabera. Agindu horren bidez, unibertsitateaz kanpoko mailetako ikasleak eskolatzeko ikasketa-bekak eta -laguntzak deitzen dira, eta kanpoan geratzen dira testuliburuak eta material didaktikoa modu solidarioan eta ekitatiboan erabiltzeko programako bekak.

Gasteizko Udalak dokumentazio osagarria eskatu ahalko du deialdia ebazteko komeni dela uste badu.

Hezkuntza Zerbitzuan dirulaguntza lehen aldiz eskatzen bada, edota datuak aldatu badira, honako hauek ere aurkeztu behar dira:

- Identifikazio fiskaleko txartelaren fotokopia.
- Banku-erakundeak emandako ziurtagiri eguneratua; agiri horretan, kontu-zenbakia eta kontuaren titularra agertuko dira, kontuan hartuta, betiere, ikastetxeak izan behar duela titularra.

### **9. Parte hartzeko baldintzak**

9.1. Ikasleek, gehienez ere, bi ikasturtetan parte hartu ahal izango dute laguntza deialdi honen xede den arreta psikopedagogikoan.

Deialdi honen esparruan, lehen aldiz laguntza hauen onuradunak diren Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailako ikasleek 2022-2023 ikasturtean beste laguntza bat jasotzeko aukera izango dute, betiere horretarako aurrekontu kontsignazio nahikoa dagoenean, eta ikasturte horretarako laguntzen deialdia deialdi honen berdina edo parekoa bada.

Bestalde, deialdi honen ikasle onuradunek, 2020-2021 ikasturteko deialdian ere onuradun izan badira, ezingo dute 2022-2023 ikasturteko deialdian laguntza hori jaso, baldin eta laguntza horren xedea deialdi honen berdina edo parekoa bada.

9.2. Ikasle onuradun horiek laguntza psikopedagogiko hori jasotzeko, ikastetxeak aurretiaz jaso beharko du, idatziz, familiaren edo beren legezko tutoreen baimena saio horietara joateko, baita prozesuan duten konpromisoa eta inplikazioa ere. Udalaren Hezkuntza Zerbitzuak (Hezkuntza eta Kultura Saila) ikastetxeei eskatu ahal izango die, edozein unetan, baimen horiek aurkeztea (V. eranskina).

9.3. Ikastetxeetako aholkulariek egingo dute laguntza hori jasotzen duten ikasleen bilakaeraren jarraipena. Hala, Kabinete psikopedagogikoekin harreman ona izatea bermatuko dute, baita ikasle onuradunen familiekin edo legezko tutoreekin ere.

Bestalde, Udalaren Hezkuntza Zerbitzuak, egokitzen ikusten duenean eta norberaren jarraipena egiteko, ikastetxe horien informazioa jaso ahal izango du, baita Kabinete psikopedagogikoetatik ere.

9.4. Ikasle batek justifikatu gabe bi aldiz huts egiten badu, laguntza bertan behera geratzea ekarriko du.

9.5. Edozein arrazoiengatik ikasleren batek arreta psikopedagogikoaren saioak alde batera uzten baditu, aldi baterako edo behin betiko, ikastetxeak egoera horren berri eman beharko dio Udalaren Hezkuntza Zerbitzuari (Hezkuntza eta Kultura Saila) oinarri espezifikoko hauei erantsitako III. eranskinaren bidez.

Behin ikasturtea hasita bajaren bat edo uko egiteren bat gertatuz gero, ikastetxeak proposatu ahal izango du baldintza berberak betetzen dituen beste ikasle batekin ordeztzea. Lehenengo ikasleak baja eman edo uko egin ondoren egin gabe geratu diren saioen kopurua jasoko du. Proposamena idatziz jakinarazi beharko zaio Hezkuntza Zerbitzuari, oniritzia eman diezaion, III. eranskinetako baja edo uko egitearekin batera.

9.6. Ikastetxeak bere gain hartuko du deialdi honen esparruan esku hartzen duten Kabinete psikopedagogikoekin eginiko saioei dagozkien fakturen ordainketa. Horretarako, Vitoria-Gasteizko Udalak emandako laguntzaren zenbatekoa ikastetxeko bankuko kontuan sartuko da.

Kabinete psikopedagogikoei ordaintzeko, gehienez ere, 28 euroko dirulaguntza emango zaio ikastetxeari, saioko eta orduko. Bestalde, taldeko saioen kasuan, gehieneko dirulaguntza 43 eurokoa izango da saioko eta orduko.

Familiei eta, hala badagokie, aholkulariei eta/edo tutoreei zuzendutako saioak banakakoak eta espezifikokoak izango dira, baita ikasleekiko esku-hartzea talde-saioen bidez egiten denean ere. Saio horiek 30 minutu iraungo dute, eta gehienez ere 14 euroko dirulaguntza izango dute.

9.7. Ikastetxeek Kabinete psikopedagogikoei eskatuko dizkiete ikasle onuradunei arreta eskainiko dieten pertsonen ezezko ziurtagiria, zehazki, Sexu Delitugileen Erregistro Nagusiak igorritakoa. Espainiako nazionalitatearik ez duten pertsonen kasuan, ziurtagiri negatibo horrez gain, dagokien herrialdeko nazionalitatearen ziurtagiria aurkeztu beharko dute. Hezkuntza Zerbitzuak ikastetxeei eskatu ahal izango die, edozein unetan, ziurtagiri horiek aurkeztea.

Urtarrilaren 15eko 1/1996 Legeak (Adin Txikikoen Babes Juridikoari buruzkoa, Kode Zibila eta Prozedura Zibilaren Legea Partzialki Aldatzekoa, haurrak eta nerabeak zaintzeko sistema aldatzen duen uztailaren 28ko 26/2015 Legeak aldatu duena) eta Boluntarioei buruzko urriaren 14ko 45/2015 Legeak ezartzen dute adingabeekin ohiko harremana izatea eskatzen duten lanbide, ofizio eta jardueretan sarbidea izateko baldintza izango dela epai irmo baten bidez sexu-askatasunaren eta sexu-ukigabetasunaren aurkako delituengatik zigorrik jaso ez izana.

### **10. Dirulaguntza emateko prozedura**

Dirulaguntzak lehia-konkurrentziaren bidez emango dira, 11. oinarriak ezarritako irizpideen arabera.

Eskaerak jaso, baldintzak egiaztatu eta izapidetzeko onartu ondoren, txosten tekniko eta ebazpen-proposamena egingo dira, oinarri hauetan ezarritako irizpideekin bat etorritik.

Horretarako, kide anitzeko organo eskuduna eratuko da eskaerak eta emango diren laguntzen proposamena aztertzeko. Organo horretan, honako hauek egongo dira: Hezkuntza Zerbitzuko burua eta Hezkuntza Ekintzen Ataleko bi teknikari.

Halaber, organo izapidegilea Saileko Administrazio Orokorreko Goi Teknikaria izango da, eta berak egingo ditu ofizioz datuak zehazteko, ezagutzeko eta egiaztatze beharrezkotzat jotzen dituen jarduketak guztiak. Datu horien arabera, dirulaguntzak emateko ebazpen-proposamenak egingo dira

Tokiko Gobernu Batzordeak izango du dirulaguntzen ebazpenak emateko eskumena.

### **11. Dirulaguntzan zenbatekoa zehazteko irizpideak**

Dirulaguntzaren zenbatekoa ikasle bakoitzarekin egingo den gehienezko saio kopuruaren arabera izango da, kontuan izanda onartutako ikasleen kopurua eta ikastetxeek proposatutako saioak banakoak edo taldekoak diren.

Ikasle onuradunak zehaztean, irizpide hauek hartuko dira kontuan:

- Proposatutako ikasleek baldintzak betetzea.
- Ikastetxeek proposatutako ikasleen arazoak, Hezkuntza Zerbitzuak baloratu ditzan.
- Zenbat denbora egon diren programan, eta zer emaitza lortu dituzten ikasteko zailtasunak dituzten neska-mutikoentzako 2020-2021 ikasturteko laguntza deialdiaren ikasle onuradunek (2020ko uztailaren 24ko ALHAO, 83.zenbakian).

### **12. Ebazteko eta jakinarazteko epea**

2021erako Vitoria-Gasteizko Udaleko dirulaguntzen deialdiak arautzen dituzten oinarri orokorretan xedatutakoaren arabera. Oinarri orokor horiek 2020ko abenduaren 30eko ALHAOn (148. zenbakian) argitaratu ziren, eta webgunean ([www.vitoria-gasteiz.org/subvenciones](http://www.vitoria-gasteiz.org/subvenciones)) nahiz herritarren arreta-bulegoetan begiratu daitezke.

### **13. Dirulaguntza ordaintzea eta justifikatzeko modua**

#### **13.1. Dirulaguntza ordaintzea.**

Udalak ordainketa alde aurretik egingo du, bi zatitan: lehen ordainketa, 2021eko udal aurrekontuaren kargura, eta bigarren ordainketa, 2022ko udal aurrekontuaren kargura, baldin eta 2022ko udal aurrekontuan xede horretarako kreditu egokia eta nahikoa badago.

Dirulaguntza ez da ordainduko, erakunde onuradunak ez badu Udal honek emandako beste dirulaguntza bat zuritu, edo ez badu lehenago emandako beste dirulaguntza bat itzuli horrela eskatu zaionean.

### 13.2. Dirulaguntza justifikatzeko epea.

2021-2022 ikasturterako emandako dirulaguntzaren justifikazioa behin bakarrik egingo da, 2022ko ekainaren 28a baino lehen, egun hori barne.

### 13.3. Dirulaguntza justifikatzeko aurkeztu beharreko dokumentazioa:

a) Egindako programa azaltzen duen txosten-memoria (Oinarri espezifiko hauei atxikitutako IV. eranskina). Txosten horrek atal hauek zehaztuko ditu:

- Ikaslearen datuak eta laguntza justifikatzen duten arazoak.
- Bertaratzeari buruzko datuak. Jasotako saioen kopurua, huts egiteak eta huts egite horien justifikazioa.
- Ikasleen eboluzioa. Saioetara bertaratzearen ondorioz, eskolako emaitzak eta/edo jarrera eta interesa hobetzea.
- Emandako laguntzaren balorazioa. Ikaslearen aprobeitxamendua, gauzatutako laguntzan mesede egiten duten edo eragin negatiboa izan duten inguruabarrak eta abar.
- Familiekin edo legezko tutoreekin eginiko lanaren balorazioa, bai ikastetxeak eginikoa, bai Kabinete psikopedagogikoen eginikoa.

b) Ekintzen kostua justifikatzen duen memoria, honako hauek jasotzen dituen:

- Oinarri orokorren 1-J eranskina - Funts propioen edo beste erakunde batzuetatik jasotako funtsen justifikazioa. Ez da beharrezkoa izango eranskin hau aurkeztea diruz lagundutako jarduera finantzatzeko funts propioak aurrekusi ez bada, ez eta xede horretarako bestelako dirulaguntza edo diru-sarrerarik jaso ez bada ere.
- Oinarri orokorren 2-J eranskina - Diruz lagundutako proiektuari dagozkion gastuen zerrenda: egindako gastuen zerrenda sailkatua, zein izan den Kabinete psikopedagogikoa, zenbatekoa, jaulkipen-data eta ordainketa. Horrekin batera, Kabinete psikopedagogikoen egindako jatorrizko fakturak aurkeztuko dira. Faktura horietan, honako hauek jasoko dira: saioen kopurua, noiz egin diren, jaulkipen data, zenbatekoa eta ordaindu direla egiaztatzen duen agiria.
- Oinarri Orokorren 3-J eranskina - Diru-sarreraren eta gastuen balantzea.
- Oinarri orokorren 5-J eranskina - Zinpeko aitortpena: eranskin honek honako adierazpen hauek ditu:
  - Erantzukizunpeko adierazpena, fakturak eta ordainagiriak aurrekusiako helburua gauzatzeko sortu zirela eta Vitoria-Gasteizko Udalaren ekarpenarekin finantzatu direla adierazten duena.
  - Proiektua garatzeko soldatapeko langilerik ez dagoela dioen erantzukizunpeko adierazpena.
  - Diruz lagundutako jarduera finantzatzeko beste dirulaguntzarik edo diru-sarrerarik jaso bada, jatorriaren eta jasotako zenbatekoaren xehetasunak adierazi behar dira, edo, hala bada, gogio, beste laguntzarik edo dirulaguntzarik ez dela jaso adierazi.
  - Banku-sarreraren ordainketa-gutuna, justifikatu gabeko zenbatekoak itzuli behar badira.

## 14. Informazioa eta aholkularitza

Kontsultak Udaleko Hezkuntza Zerbitzura zuzendu daitezke: M<sup>a</sup> Jesús Portillo (telefonoa: 945161227, [mjportillo@vitoria-gasteiz.org](mailto:mjportillo@vitoria-gasteiz.org)) edo 945161230 [hezkuntza@vitoria-gasteiz.org](mailto:hezkuntza@vitoria-gasteiz.org).

## 15. Itzultzea

Laguntza (zati bat edo osorik) gauzatu ez bada edo justifikatu ezin bada, jasotako zenbatekoa eta, hala badagokio, interesak Vitoria-Gasteizko Udalari ordaindu zaizkiola egiaztatzen duen banku-ziurtagiria aurkeztu behar da; ordainketa Kutxabankeko kontu honetan egin behar da: ES03 2095 0611 03 1090952416.



**IKASTEKO ZAILTAZUNAK DITUZTEN HAURREI LAGUNTZEKO LAGUNTZEN DEIALDIA**  
**CONVOCATORIA DE AYUDAS PARA EL APOYO A NIÑAS Y NIÑOS CON DIFICULTADES EN EL APRENDIZAJE**

**I. ERANSKINA / ANEXO I**  
Txosten tekniko / Informe técnico

**Ikastetxearen zuzendaria / Directora o director del centro** NAN / DNI

**Ikastetxearen izena / Nombre del centro** IFZ / NIF

**Telefonoa / Teléfono** Helbidea elektronikoa / Correo electrónico

**Jarrarian adierazten den ikaslearentzako laguntza psikopedagogika ematea proposatzen du:** Propone la concesión de una ayuda psicopedagógica para la alumna o alumno:

**Jaiotze data /** Fecha nacimiento  
**Sexua / Generoa** Sexo / Género  
**Hezkuntza-maila /** Nivel educativo

**Ba al du laguntzarik ikastetxean edo ikastetxetik kanpo?** / Dispone de algún tipo de apoyo dentro o fuera del centro escolar? Hala bada zehaztu / especificar en caso afirmativo:

**Jaso al zuen laguntzarik, deialdi honen kargura, 2020-21 ikasturtean?** BAI  EZ   
¿Recibió ayuda con cargo a esta convocatoria, en el curso 2020-21?

**Azaldu eskaera justifikatzen duen arazoa /** Especifique la problemática que justifica esta solicitud:

- Laguntza psikopedagogikoa /** Ayuda de carácter psicopedagógico
- Hizkuntza-gaitasunari lotutakoak (taldeko arreta)**  
Vinculada a la competencia lingüística (atención grupal)

**Hala bada taldeko proposamena izango da, adierazi saioa zein ikaslerekin partekatuko lukeen.** / En este caso la atención será grupal, especifique las alumnas y alumnos con quienes compartirá sesión:

**Kabinete psikopedagogiko**  
Gabinete psicopedagógico

**Vitoria-Gasteizen,**  
**Zuzendariaren sinadura /** Firma de la dirección

**Izena ematea orria sinatu baino lehen, irakurri hurrengo orrian zehaztutako datu pertsonalen tratamenduari buruzko informazioa.**  
Antes de firmar la solicitud, debe leer la información sobre el tratamiento de datos personales que se detalla en la página siguiente.





**IKASTEKO ZAILTASUNAK DITUZTEN HAURREI LAGUNTZEKO LAGUNTZEN DEIALDIA  
CONVOCATORIA DE AYUDAS PARA EL APOYO A NIÑAS Y NIÑOS CON DIFICULTADES  
EN EL APRENDIZAJE**

**DATU PERTSONALEN TRATAMENDUARI BURUZKO INFORMAZIOA  
INFORMACIÓN SOBRE EL TRATAMIENTO DE DATOS PERSONALES**

|   |  |
|---|--|
| <b>Tratamenduaren arduraduna</b><br><i>Responsable del tratamiento</i>  | Vitoria-Gasteizko Udala – Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz (IFK-CIF:P0106800F)  |
| <b>Tratamenduaren arduradunaren kontaktu datuak</b><br><i>Contacto del Responsable del tratamiento</i>          | Calle Pintor Teodoro Dublang kalea, 25 - 01008 Vitoria-Gasteiz, Álava – 945 161 616 – informacion@vitoria-gasteiz.org – www.vitoria-gasteiz.org  |
| <b>Datuak Babesteko Ordezkararen kontaktu datuak</b><br><i>Contacto de la Delegada de Protección de Datos</i>   | dbo-dpd@vitoria-gasteiz.org  |
| <b>Tratamenduaren xedeak</b><br><i>Finalidad del tratamiento</i>  | Ikasteko zailtasunak dituzten neska-mutikoei laguntzeko diru laguntzen izapidetza, horretarako, haurren beharrianak baloratuz.<br><i>Tramitar la concesión de subvenciones de apoyo a niñas y niños con dificultades en el aprendizaje, valorando las necesidades concretas de las y los menores.</i>  |
| <b>Tratamenduaren legitimazioa edo oinarri juridikoa</b><br><i>Legitimación o base jurídica del tratamiento</i> | Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorra eta Udalaren Diru-laguntzei buruzko Ordenantza. DBAOk 6.1.a) artikulua: Interesdunak bere datu pertsonalak tratatzeko adostasuna eman du helburu zehatz bati edo gehiagori begira.<br><i>Ley General de Subvenciones y Ordenanza municipal de subvenciones. Artículo 6.1.a) RGPD: La persona interesada dio su consentimiento para el tratamiento de sus datos personales para uno o varios fines específicos.</i>  |
| <b>Hartzaileak</b><br><i>Personas o entidades destinatarias</i>   | Hezkuntzan edo/eta adingabekoen babesean eskumenak dituzten erakunde zein organismo publikoak, baita legeak haiei datuak komunikatu beharra agintzen duen erakunde eta organoak ere.<br><i>Entidades u Organismos públicos competentes en educación y/o atención y/o protección a menores, y aquellos con los que exista obligación legal de realizar comunicaciones de datos.</i>   |
| <b>Gordetzeko epea</b><br><i>Plazo de conservación</i>  | Datuak gorde egingo dira, jaso ziren xederako eta/edo xede horretatik eta datuen tratamendutik erator litekeen erantzukizun oro preskribatzeko lege ezarritako epeak iraungi bitartean. Horrez gain, gorde egongo dira baita pertsona interesatuarekin izandako harremanetik eratorri litekeen erreklamazioak egiteko edo horietatik babesteko aurreikusitako epeak iraun bitartean. Orobat, artxibategi eta dokumentazioari buruzko araudian xedatutakoa aplikatuko zaie datuei.<br><i>Los datos se conservarán el tiempo necesario para cumplir con la finalidad para la que se recabaron y/o durante los plazos legales previstos para la prescripción de cualquier responsabilidad que se pudiera derivar de dicha finalidad y del tratamiento de los mismos; igualmente, se conservarán durante los plazos previstos para el ejercicio o la defensa de reclamaciones derivadas de la relación mantenida con la persona interesada. Asimismo, les será de aplicación lo dispuesto en la normativa de archivos y documentación.</i> |
| <b>Pertsonen eskubideak</b><br><i>Derechos de las personas</i>  | Datuak babesteko delegatuaren bitartez, pertsona interesatuak datuak ikusi ditzake, aldatzeko eskatu, edo, hala behar bada, datuak ezeztatzeko eskatu, horien kontra agertu edo tratamendua mugatzeko eskatu.<br><i>Las personas interesadas pueden acceder a sus datos, solicitar su rectificación o, en su caso, supresión, oposición o limitación de tratamiento, a través de la Delegada de Protección de Datos.</i>   |





**IKASTEKO ZAILTAZUNAK DITUZTEN HAURREI LAGUNTZEKO LAGUNTZEN DEIALDIA**  
**CONVOCATORIA DE AYUDAS PARA EL APOYO A NIÑAS Y NIÑOS CON DIFICULTADES EN EL APRENDIZAJE**

## II. ERANSKINA / ANEXO II

### **Eusko Jaurlaritzaren beka jaso duten ikasleen zerrenda** Relación de alumnado becado por el Gobierno Vasco

**Ikastetxearen zuzendaria / Directora o director del centro** **NAN / DNI**

**Ikastetxearen izena / Nombre del centro** **IFZ / NIF**

**Telefonoa / Teléfono** **Helbidea elektronikoa / Correo electrónico**

### **ADIERAZTEN DU / DECLARA**

**Zerrenda honetan agertzen diren ikasleek Eusko Jaurlaritzaren beka jaso dutela 2020-2021 ikasturtean / Que las alumnas y alumnos que aparecen en el siguiente listado han recibido beca del Gobierno Vasco en el curso 2020-2021:**

**2020-2021eko deialdiko ikasleak /**  
Alumnado de la convocatoria 2020-2021

**2021-2022ko deialdirako lehen aldiz proposatutako ikasleak / Alumnado propuesto por primera vez para la convocatoria 2021-2022**

**Vitoria-Gasteizen,**  
**Zuzendariaren sinadura / Firma de la dirección**

**Izena ematea orria sinatu baino lehen, irakurri hurrengo orrian zehaztutako datu pertsonalen tratamenduari buruzko informazioa.**  
Antes de firmar la solicitud, debe leer la información sobre el tratamiento de datos personales que se detalla en la página siguiente.



**IKASTEKO ZAILTASUNAK DITUZTEN HAURREI LAGUNTZEKO LAGUNTZEN DEIALDIA**  
**CONVOCATORIA DE AYUDAS PARA EL APOYO A NIÑAS Y NIÑOS CON DIFICULTADES**  
**EN EL APRENDIZAJE**

| <b>DATU PERTSONALEN TRATAMENDUARI BURUZKO INFORMAZIOA</b><br><i>INFORMACIÓN SOBRE EL TRATAMIENTO DE DATOS PERSONALES</i> |  |
|--|--|
| <b>Tratamenduaren arduraduna</b><br><i>Responsable del tratamiento</i>   | Vitoria-Gasteizko Udala – Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz (IFK-CIF:P0106800F)  |
| <b>Tratamenduaren arduradunaren kontaktu datuak</b><br><i>Contacto del Responsable del tratamiento</i>                   | Calle Pintor Teodoro Dublang kalea, 25 - 01008 Vitoria-Gasteiz, Álava – 945 161 616 – <a href="mailto:informacion@vitoria-gasteiz.org">informacion@vitoria-gasteiz.org</a> – <a href="http://www.vitoria-gasteiz.org">www.vitoria-gasteiz.org</a>  |
| <b>Datuak Babesteko Ordezkararen kontaktu datuak</b><br><i>Contacto de la Delegada de Protección de Datos</i>            | <a href="mailto:dbo-dpd@vitoria-gasteiz.org">dbo-dpd@vitoria-gasteiz.org</a>   |
| <b>Tratamenduaren xedeak</b><br><i>Finalidad del tratamiento</i>   | <b>Ikasteko zailtasunak dituzten neska-mutikoei laguntzeko diru laguntzen izapidetza, horretarako, haurren beharrianak baloratuz.</b><br><i>Tramitar la concesión de subvenciones de apoyo a niñas y niños con dificultades en el aprendizaje, valorando las necesidades concretas de las y los menores.</i>   |
| <b>Tratamenduaren legitimazioa edo oinarri juridikoa</b><br><i>Legitimación o base jurídica del tratamiento</i>          | <b>Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorra eta Udalaren Diru-laguntzei buruzko Ordenantza. DBAOk 6.1.a) artikulua: Interesdunak bere datu pertsonalak tratatzeko adostasuna eman du helburu zehatz bati edo gehiagori begira.</b><br><i>Ley General de Subvenciones y Ordenanza municipal de subvenciones. Artículo 6.1.a) RGPD: La persona interesada dio su consentimiento para el tratamiento de sus datos personales para uno o varios fines específicos.</i>   |
| <b>Hartzaileak</b><br><i>Personas o entidades destinatarias</i>  | <b>Hezkuntzan edo/eta adingabekoen babesean eskumenak dituzten erakunde zein organismo publikoak, baita legeak haiei datuak komunikatu beharra agintzen duen erakunde eta organoak ere.</b><br><i>Entidades u Organismos públicos competentes en educación y/o atención y/o protección a menores, y aquellos con los que exista obligación legal de realizar comunicaciones de datos.</i>  |
| <b>Gordetzeko epea</b><br><i>Plazo de conservación</i>   | <b>Datuak gorde egingo dira, jaso ziren xederako eta/edo xede horretatik eta datuen tratamendutik erator litekeen erantzukizun oro preskribatzeko lege ezarritako epeak iraungi bitartean. Horrez gain, gorde egongo dira baita pertsona interesatuarekin izandako harremanetik eratorri litezkeen erreklamazioak egiteko edo horietatik babesteko aurreikusitako epeak iraun bitartean. Orobat, artxibategi eta dokumentazioari buruzko araudian xedatutakoa aplikatuko zaie datuei.</b><br><i>Los datos se conservarán el tiempo necesario para cumplir con la finalidad para la que se recabaron y/o durante los plazos legales previstos para la prescripción de cualquier responsabilidad que se pudiera derivar de dicha finalidad y del tratamiento de los mismos, igualmente, se conservarán durante los plazos previstos para el ejercicio o la defensa de reclamaciones derivadas de la relación mantenida con la persona interesada. Asimismo, les será de aplicación lo dispuesto en la normativa de archivos y documentación.</i> |
| <b>Pertsonen eskubideak</b><br><i>Derechos de las personas</i>   | <b>Datuak babesteko delegatuaren bitartez, pertsona interesatuak datuak ikusi ditzake, aldatzeko eskatu, edo, hala behar bada, datuak ezetzatzeko eskatu, horien kontra agertu edo tratamendua mugatzeko eskatu.</b><br><i>Las personas interesadas pueden acceder a sus datos, solicitar su rectificación o, en su caso, supresión, oposición o limitación de tratamiento, a través de la Delegada de Protección de Datos.</i>  |



**IKASTEKO ZAILTASUNAK DITUZTEN HAURREI LAGUNTZEKO LAGUNTZEN DEIALDIA**  
**CONVOCATORIA DE AYUDAS PARA EL APOYO A NIÑAS Y NIÑOS CON DIFICULTADES EN EL APRENDIZAJE**

### III. ERANSKINA / ANEXO III

#### **Uko egitea / ordezkapenaren jakinarazpena** Comunicación de renuncia / sustitución

**Ikastetxearen zuzendaria / Directora o director del centro** **NAN / DNI**

**Ikastetxearen izena / Nombre del centro** **IFZ / NIF**

**Telefonoa / Teléfono** **Helbidea elektronikoa / Correo electrónico**

#### **ADIERAZTEN DU / DECLARA**

**2021-2022 ikasturtean zailtasunak dituzten haurrentzako laguntzen deialdian emandako laguntzei uko egitea:** / La renuncia a la ayuda concedida en el marco de la Convocatoria de ayudas a niñas y niños con dificultades en el aprendizaje, curso 2021-2022, de la alumna o alumno:

#### **ETA PROPOSATZEN DU / Y PROPONE**

**Deialdiaren baldintzak betetzen dituen ikaslea:** / A la alumna o alumno que cumple los requisitos de la presente convocatoria.

**Jaiotze data /**  
Fecha nacimiento

**Sexua / Generoa**  
**Sexo / Género**

**Hezkuntza-maila /**  
Nivel educativo

**2020-2021 ikasturtean bekaduna /** Becado en el curso 2020-2021: BAI  EZ

**Duen zailtasuna eta, hala badagokio, sartuko den taldea /** Problemática que presenta y, en su caso, grupo al que se incorpora:

**Kabinete psikopedagogiko**  
Gabinete psicopedagógico

**Vitoria-Gasteizen,**  
**Zuzendariaren sinadura /** Firma de la dirección

**Izena ematea orria sinatu baino lehen, irakurri hurrengo orrian zehaztutako datu pertsonalen tratamenduari buruzko informazioa.**  
Antes de firmar la solicitud, debe leer la información sobre el tratamiento de datos personales que se detalla en la página siguiente.



**IKASTEKO ZAILTASUNAK DITUZTEN HAURREI LAGUNTZEKO LAGUNTZEN DEIALDIA**  
**CONVOCATORIA DE AYUDAS PARA EL APOYO A NIÑAS Y NIÑOS CON DIFICULTADES**  
**EN EL APRENDIZAJE**

| <b>DATU PERTSONALEN TRATAMENDUARI BURUZKO INFORMAZIOA</b><br><i>INFORMACIÓN SOBRE EL TRATAMIENTO DE DATOS PERSONALES</i> |  |
|--|--|
| <b>Tratamenduaren arduraduna</b><br><i>Responsable del tratamiento</i>   | Vitoria-Gasteizko Udala – Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz (IFK-CIF:P0106800F)  |
| <b>Tratamenduaren arduradunaren kontaktu datuak</b><br><i>Contacto del Responsable del tratamiento</i>                   | Calle Pintor Teodoro Dublang kalea, 25 - 01008 Vitoria-Gasteiz, Álava – 945 161 616 – <a href="mailto:informacion@vitoria-gasteiz.org">informacion@vitoria-gasteiz.org</a> – <a href="http://www.vitoria-gasteiz.org">www.vitoria-gasteiz.org</a>  |
| <b>Datuak Babesteko Ordezkararen kontaktu datuak</b><br><i>Contacto de la Delegada de Protección de Datos</i>            | <a href="mailto:dbo-dpd@vitoria-gasteiz.org">dbo-dpd@vitoria-gasteiz.org</a>   |
| <b>Tratamenduaren xedeak</b><br><i>Finalidad del tratamiento</i>   | <b>Ikasteko zailtasunak dituzten neska-mutikoei laguntzeko diru laguntzen izapidetza, horretarako, haurren beharrianak baloratuz.</b><br><i>Tramitar la concesión de subvenciones de apoyo a niñas y niños con dificultades en el aprendizaje, valorando las necesidades concretas de las y los menores.</i>   |
| <b>Tratamenduaren legitimazioa edo oinarri juridikoa</b><br><i>Legitimación o base jurídica del tratamiento</i>          | <b>Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorra eta Udalaren Diru-laguntzei buruzko Ordenantza. DBAOk 6.1.a) artikulua: Interesdunak bere datu pertsonalak tratatzeko adostasuna eman du helburu zehatz bati edo gehiagori begira.</b><br><i>Ley General de Subvenciones y Ordenanza municipal de subvenciones. Artículo 6.1.a) RGPD: La persona interesada dio su consentimiento para el tratamiento de sus datos personales para uno o varios fines específicos.</i>   |
| <b>Hartzaileak</b><br><i>Personas o entidades destinatarias</i>  | <b>Hezkuntzan edo/eta adingabekoen babesean eskumenak dituzten erakunde zein organismo publikoak, baita legeak haiei datuak komunikatu beharra agintzen duen erakunde eta organoak ere.</b><br><i>Entidades u Organismos públicos competentes en educación y/o atención y/o protección a menores, y aquellos con los que exista obligación legal de realizar comunicaciones de datos.</i>  |
| <b>Gordetzeko epea</b><br><i>Plazo de conservación</i>   | <b>Datuak gorde egingo dira, jaso ziren xederako eta/edo xede horretatik eta datuen tratamendutik erator litekeen erantzukizun oro preskribatzeko lege ezarritako epeak iraungi bitartean. Horrez gain, gorde egongo dira baita pertsona interesatuarekin izandako harremanetik eratorri litezkeen erreklamazioak egiteko edo horietatik babesteko aurreikusitako epeak iraun bitartean. Orobat, artxibategi eta dokumentazioari buruzko araudian xedatutakoa aplikatuko zaie datuei.</b><br><i>Los datos se conservarán el tiempo necesario para cumplir con la finalidad para la que se recabaron y/o durante los plazos legales previstos para la prescripción de cualquier responsabilidad que se pudiera derivar de dicha finalidad y del tratamiento de los mismos, igualmente, se conservarán durante los plazos previstos para el ejercicio o la defensa de reclamaciones derivadas de la relación mantenida con la persona interesada. Asimismo, les será de aplicación lo dispuesto en la normativa de archivos y documentación.</i> |
| <b>Pertsonen eskubideak</b><br><i>Derechos de las personas</i>   | <b>Datuak babesteko delegatuaren bitartez, pertsona interesatuak datuak ikusi ditzake, aldatzeko eskatu, edo, hala behar bada, datuak ezeztatzeko eskatu, horien kontra agertu edo tratamendua mugatzeko eskatu.</b><br><i>Las personas interesadas pueden acceder a sus datos, solicitar su rectificación o, en su caso, supresión, oposición o limitación de tratamiento, a través de la Delegada de Protección de Datos.</i>  |



**IKASTEKO ZAILTAZUNAK DITUZTEN HAURREI LAGUNTZEKO LAGUNTZEN DEIALDIA**  
*CONVOCATORIA DE AYUDAS PARA EL APOYO A NIÑAS Y NIÑOS CON DIFICULTADES EN EL APRENDIZAJE*

**IV. ERANSKINA / ANEXO IV**

**EGINDAKO PROGRAMAREN OROITIDAZKIA**  
**INFORME MEMORIA DEL PROGRAMA REALIZADO**

**Ikaslearen izen-abizenak** / Nombre y apellidos de la alumna o alumno:

**Ikastetxearen izena** / Nombre del centro

**Maila** / Nivel educativo

**Kabinete psikopedagogikoa eta profesionalaren izena** / Gabinete psicopedagógico y nombre y apellido del profesional que atiende:

**Laguntzaren xede den arazoaren deskribapen sinoptikoa** / Descripción sinóptica de la problemática objeto de la ayuda:

**Bertaratzeari buruzko datuak** / Datos de la asistencia:

**Ikaslearen garapenaren bilakaera** / Evolución de la alumna o alumno:

**Jasotako laguntzaren balorazioa** / Valoración del apoyo recibido:

**Familiak edo legezko tutoreek izan duten parte-hartzearen eta inplikazioaren balorazioa** / Valoración de la participación e implicación de la familia o personas tutoras legales:

**Vitoria-Gasteizen,**  
**Zuzendariaren sinadura** / Firma de la dirección

**Izena ematea orria sinatu baino lehen, irakurri hurrengo orrian zehaztutako datu pertsonalen tratamenduari buruzko informazioa.**  
Antes de firmar la solicitud, debe leer la información sobre el tratamiento de datos personales que se detalla en la página siguiente.



Ayuntamiento  
de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko  
Udala

**IKASTEKO ZAILTASUNAK DITUZTEN HAURREI LAGUNTZEKO LAGUNTZEN DEIALDIA  
CONVOCATORIA DE AYUDAS PARA EL APOYO A NIÑAS Y NIÑOS CON DIFICULTADES  
EN EL APRENDIZAJE**

**DATU PERTSONALEN TRATAMENDUARI BURUZKO INFORMAZIOA  
INFORMACIÓN SOBRE EL TRATAMIENTO DE DATOS PERSONALES**

|   |  |
|---|--|
| <b>Tratamenduaren arduraduna</b><br><i>Responsable del tratamiento</i>  | Vitoria-Gasteizko Udala – Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz (IFK-CIF:P0106800F)  |
| <b>Tratamenduaren arduradunaren kontaktu datuak</b><br><i>Contacto del Responsable del tratamiento</i>          | Calle Pintor Teodoro Dublang kalea, 25 - 01008 Vitoria-Gasteiz, Álava – 945 161 616 – informacion@vitoria-gasteiz.org – www.vitoria-gasteiz.org  |
| <b>Datuak Babesteko Ordezkararen kontaktu datuak</b><br><i>Contacto de la Delegada de Protección de Datos</i>   | dbo-dpd@vitoria-gasteiz.org  |
| <b>Tratamenduaren xedeak</b><br><i>Finalidad del tratamiento</i>  | Ikasteko zailtasunak dituzten neska-mutikoei laguntzeko diru laguntzen izapidetza, horretarako, haurren beharrianak baloratuz.<br><i>Tramitar la concesión de subvenciones de apoyo a niñas y niños con dificultades en el aprendizaje, valorando las necesidades concretas de las y los menores.</i>  |
| <b>Tratamenduaren legitimazioa edo oinarri juridikoa</b><br><i>Legitimación o base jurídica del tratamiento</i> | Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorra eta Udalaren Diru-laguntzei buruzko Ordenantza. DBAOKo 6.1.a) artikulua: Interesdunak bere datu pertsonalak tratatzeko adostasuna eman du helburu zehatz bati edo gehiagori begira.<br><i>Ley General de Subvenciones y Ordenanza municipal de subvenciones. Artículo 6.1.a) RGPD: La persona interesada dio su consentimiento para el tratamiento de sus datos personales para uno o varios fines específicos.</i>   |
| <b>Hartzaileak</b><br><i>Personas o entidades destinatarias</i>   | Hezkuntzan edo/eta adingabekoen babesean eskumenak dituzten erakunde zein organismo publikoak, baita legeak haiei datuak komunikatu beharra agintzen duen erakunde eta organoak ere.<br><i>Entidades u Organismos públicos competentes en educación y/o atención y/o protección a menores, y aquellos con los que exista obligación legal de realizar comunicaciones de datos.</i>   |
| <b>Gordetzeko epea</b><br><i>Plazo de conservación</i>  | Datuak gorde egingo dira, jaso ziren xederako eta/edo xede horretatik eta datuen tratamendutik erator litekeen erantzukizun oro preskribatzeko lege ezarritako epeak iraungi bitartean. Horrez gain, gorde egongo dira baita pertsona interesatuarekin izandako harremanetik eratorri litekeen erreklamazioak egiteko edo horietatik babesteko aurreikusitako epeak iraun bitartean. Orobat, artxibategi eta dokumentazioari buruzko araudian xedatutakoa aplikatuko zaie datuei.<br><i>Los datos se conservarán el tiempo necesario para cumplir con la finalidad para la que se recabaron y/o durante los plazos legales previstos para la prescripción de cualquier responsabilidad que se pudiera derivar de dicha finalidad y del tratamiento de los mismos; igualmente, se conservarán durante los plazos previstos para el ejercicio o la defensa de reclamaciones derivadas de la relación mantenida con la persona interesada. Asimismo, les será de aplicación lo dispuesto en la normativa de archivos y documentación.</i> |
| <b>Pertsonen eskubideak</b><br><i>Derechos de las personas</i>  | Datuak babesteko delegatuaren bitartez, pertsona interesatuak datuak ikusi ditzake, aldatzeko eskatu, edo, hala behar bada, datuak ezeztatzeko eskatu, horien kontra agertu edo tratamendua mugatzeko eskatu.<br><i>Las personas interesadas pueden acceder a sus datos, solicitar su rectificación o, en su caso, supresión, oposición o limitación de tratamiento, a través de la Delegada de Protección de Datos.</i>   |



**IKASTEKO ZAILTASUNAK DITUZTEN HAURREI LAGUNTZEKO LAGUNTZEN DEIALDIA**  
**CONVOCATORIA DE AYUDAS PARA EL APOYO A NIÑAS Y NIÑOS CON DIFICULTADES EN EL**  
**APRENDIZAJE**

**V. ERANSKINA / ANEXO V**

**BAIMENA / AUTORIZACIÓN**

**Ikaslearen izen-abizenak** / Nombre y apellidos de la alumna o alumno:

**Ikastetxearen izena** / Nombre del centro

**Maila** / Nivel educativo

**Ama / aita / tutorearen izen-abizenak** / Nombre y apellidos de la madre / padre / tutora /tutor:

**Baimena ematen du ikastetxeko aholkulariak proposatutako saioetara joateko, eta konpromisoa hartzen du familiei zuzendutako komunikazio- eta orientazio-saiotan parte hartzeko, Gasteizko Udaleko Hezkuntza eta Kultura Saileko Hezkuntza Zerbitzuak ikaskuntzan zailtasunak dituzten haurrei laguntzeko ematen dituen laguntzen esparruan.**

Autoriza la asistencia a las sesiones propuestas por la consultora o consultor del centro y se compromete a participar en las sesiones de comunicación y orientación a las familias, en el marco de las ayudas para el apoyo a niñas y niños con dificultades en el aprendizaje, promovidas por el Servicio de Educación del Departamento de Educación y Cultura del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz.

**Vitoria-Gasteizen,  
Sinadura**

**Inprimaki hau ez da entregatu behar. Nahitaez bete behar da, eta ikastetxean geratuko da udalaren eskura.** / Este formulario no debe entregarse. Su cumplimentación es obligatoria y se guardará en el centro a disposición del ayuntamiento.

**Izena ematea orria sinatu baino lehen, irakurri hurrengo orrian zehaztutako datu pertsonalen tratamenduari buruzko informazioa.**  
Antes de firmar la solicitud, debe leer la información sobre el tratamiento de datos personales que se detalla en la página siguiente.





**IKASTEKO ZAILTASUNAK DITUZTEN HAURREI LAGUNTZEKO LAGUNTZEN DEIALDIA**  
**CONVOCATORIA DE AYUDAS PARA EL APOYO A NIÑAS Y NIÑOS CON DIFICULTADES**  
**EN EL APRENDIZAJE**

**DATU PERTSONALEN TRATAMENDUARI BURUZKO INFORMAZIOA**  
**INFORMACIÓN SOBRE EL TRATAMIENTO DE DATOS PERSONALES**

|   |  |
|---|--|
| <b>Tratamenduaren arduraduna</b><br><i>Responsable del tratamiento</i>  | Vitoria-Gasteizko Udala – Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz (IFK-CIF:P0106800F)  |
| <b>Tratamenduaren arduradunaren kontaktu datuak</b><br><i>Contacto del Responsable del tratamiento</i>          | Calle Pintor Teodoro Dublang kalea, 25 - 01008 Vitoria-Gasteiz, Álava – 945 161 616 – informacion@vitoria-gasteiz.org – www.vitoria-gasteiz.org  |
| <b>Datuak Babesteko Ordezkariaren kontaktu datuak</b><br><i>Contacto de la Delegada de Protección de Datos</i>  | dbo-dpd@vitoria-gasteiz.org  |
| <b>Tratamenduaren xedeak</b><br><i>Finalidad del tratamiento</i>  | Ikasteko zailtasunak dituzten neska-mutikoei laguntzeko diru laguntzen izapidetza, horretarako, haurren beharrianak baloratuz.<br><i>Tramitar la concesión de subvenciones de apoyo a niñas y niños con dificultades en el aprendizaje, valorando las necesidades concretas de las y los menores.</i>  |
| <b>Tratamenduaren legitimazioa edo oinarri juridikoa</b><br><i>Legitimación o base jurídica del tratamiento</i> | Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorra eta Udalaren Diru-laguntzei buruzko Ordenantza. DBAOKo 6.1.a) artikulua: Interesdunak bere datu pertsonalak tratatzeko adostasuna eman du helburu zehatz bati edo gehiagori begira.<br><i>Ley General de Subvenciones y Ordenanza municipal de subvenciones. Artículo 6.1.a) RGPD: La persona interesada dio su consentimiento para el tratamiento de sus datos personales para uno o varios fines específicos.</i>   |
| <b>Hartzaileak</b><br><i>Personas o entidades destinatarias</i>   | Hezkuntzan edo/eta adingabekoen babesean eskumenak dituzten erakunde zein organismo publikoak, baita legeak haiei datuak komunikatu beharra agintzen duen erakunde eta organoak ere.<br><i>Entidades u Organismos públicos competentes en educación y/o atención y/o protección a menores, y aquellos con los que exista obligación legal de realizar comunicaciones de datos.</i>   |
| <b>Gordetzeko epea</b><br><i>Plazo de conservación</i>  | Datuak gorde egingo dira, jaso ziren xederako eta/edo xede horretatik eta datuen tratamendutik erator litekeen erantzukizun oro preskribatzeko lege ezarritako epeak iraungi bitartean. Horrez gain, gorde egongo dira baita pertsona interesatuarekin izandako harremanetik eratorri litekeen erreklamazioak egiteko edo horietatik babesteko aurreikusitako epeak iraun bitartean. Orobat, artxibategi eta dokumentazioari buruzko araudian xedatutakoa aplikatuko zaie datuei.<br><i>Los datos se conservarán el tiempo necesario para cumplir con la finalidad para la que se recabaron y/o durante los plazos legales previstos para la prescripción de cualquier responsabilidad que se pudiera derivar de dicha finalidad y del tratamiento de los mismos; igualmente, se conservarán durante los plazos previstos para el ejercicio o la defensa de reclamaciones derivadas de la relación mantenida con la persona interesada. Asimismo, les será de aplicación lo dispuesto en la normativa de archivos y documentación.</i> |
| <b>Pertsonen eskubideak</b><br><i>Derechos de las personas</i>  | Datuak babesteko delegatuaren bitartez, pertsona interesatuak datuak ikusi ditzake, aldatzeko eskatu, edo, hala behar bada, datuak ezeztatzeko eskatu, horien kontra agertu edo tratamendua mugatzeko eskatu.<br><i>Las personas interesadas pueden acceder a sus datos, solicitar su rectificación o, en su caso, supresión, oposición o limitación de tratamiento, a través de la Delegada de Protección de Datos.</i>   |